

ZIRTAK

Julen Galbina

IDAZLEA

Perfekzioa (I). Lasarte

**I**dazten hasi naizen artikulu hau izango da inoiz idatzi dudan inperfektuena, badakit. Salba dezadan nire burua, esanez perfekzioari buruz hitz egiteak ez nauela obra perfektu bat egitera behartzen, bestela bada ere nik nahi izango nukeena.

Aspalditik neukan gogoia gai honi heltzeko; zehazki, urte dezentez medioetatik aparte egon ostean, berriro hasi nintzenez hain bezalako artikuluak idazten, nolabait irakurleen iritziekin enfrentatzen, eta beraz etengabe hasi nintzenez berriz ere nire testuak zalantzan jartzen, berridazten, leuntzen, zorrozten, ukitzen eta ukatzen. Ukatzen nituelako ukitzen nituen, eta ukitzen nituelako ukatzen. Laburbilduz, esan dezadan perfekzionista sendaezina naizela eta horrek etengabeko aldaketara naramala, ustez hobetzeko asmoz. Ustez. Zeren perfekzionismoa parkinson moduko bat da: iritziak eta ikuspuntuak etengabe mugitzen zaizkizu dantza urdurian, eta, azkenean, mugimendu eta zalantza hori hain da frenetiko, ezen erabateko inebilismoa baitakar, blokeo totala, jarduera sortzailearen paralisia.

Gai honi buruz idazteko erabakia, baina, Manuel Lasarte hil zenez hartu nuen. Albiste jakitean, hari buruzko zenbait idatzi nuen arin-arin Facebooken, leizarrak eragiten zizkidan inpresio txiki batzuk aipatuz: bere seriotasuna, hitz neurtu eta zehatzen erabilera, eta taula gainean zuen ele-




INIGO AZKONA

gantzia. Ausardia faltagatik, eta gehiegi esatea zela iruditzen zitzaidalako, ez nuen perfekzioari buruzko ezer jarri. Hurrengo egunean, Jon Lopategiren hitzak irakurri nituen *Berrian*: “Bertsolari perfektu bat aukeratzekotan, Lasarte aukeratuko nuke. Goxoa kantaeran, perfektua neurrian eta erriman, euskara sekulakoa... gehiago ezin zitekeen eskatu. Perfekzioa zeukan euskararen aldetik eta teknikaren aldetik”. Poztu nintzen, norbait ausartu zelako perfekzioaren langa non zegoen esatera, eta, batez ere, gaztetan Lasarteren kaseteak entzuten nituenean sentitzen nuen txundidura hura izendatzeko modua badudalako orain: hura zerbait perfektua zen, artean hainbeste ez nekien arren.

Gutxi aritu izan nintzen gaztetan bertsotan, eta aritutako hori, txarto. Nerbioak jota, ezin ideiak behar bezala azalduta, neurrian ezin kabituta, beti motz edo luze, praka estuegiatan sartu nahi eta ezinez, inperfekzioa heltzeko ametsen beti. Perfekzioa heltzea beste batzuen lana zen, nire ligatik aparteko zerbait. Sufrimendua zen hura, hitz eta esaldi perfektuen aldarretxo haren erdian agertzea, jendea zuri begira. Eta uzten duzu bertsolaritza, eta pasatzen zara idaztera, finean material bera erabiliz baina beste patxada batekin, eta hasieran uste duzu hor bai, hor joko duzula noizbait perfekzioaren tontorra, hitzak zure eskuetan daudelako eta ez zure ahoan, baina ez: 10-8ko neurririk gabe, errimarik gabe, gaur bezala 3.400 karaktereen ohatze erosoan etzanda egonda ere, ezin perfekzioari buruz ganoraz hitz egin. Eta entzun nahiko zenuke Manuel Lasartek nola kantatuko liokeen perfekzioari, nola definituko zuen gaitz jasanez in hau, nola esango zuen, bisaje triste harekin, berak izugarri sufritzen zuela perfekzioaren aldarean. ■

Perfekzionismoa parkinson moduko bat da: iritziak eta ikuspuntuak etengabe mugitzen zaizkizu dantza urdurian, eta, azkenean, mugimendu eta zalantza hori hain da frenetiko, ezen erabateko inebilismoa baitakar, blokeo totala, jarduera sortzailearen paralisia



irudia: Antton Olariaga

